

«Uste dut Uribe Kostan garrantzi handia ematen zaiola kirolari»



MAIDER SANTXO SOTO
Aixerrota taldeko
hondartza-boleiboleko
jokalaria

hiruka

125. zenbakia

2018ko maiatzaren 10etik 16ra arte



«Matxismoaz daukagun pertzepzioa aldatuz doa»

Pikara Magazine aldizkari feministaren sortzaileetakoa izan zen June Fernández orain zortzi urte. Emakumeen borrokaren gako nagusiak aztertu ditugu harez, «La Manada» auziaren epaiak harrotutako hautsa oraindik airean dabilela.

URIBE KOSTAKO PRESOK | 2-3

**KARTZELALDI LUZEAK,
URRUN ETA ONURA BARIK**

Eskualdeko hogeitaz lagun daude preso gaur egun espainiar eta frantziar espetxeetan. Beste bat Sao Tomen dago deportatuta.

GETXOKO SAN ISIDRO JAIK | 4-5

**MUSIKA, FESTA ETA
DANTZAK ANDRA MARIN**

Maiatzaren 11tik 15era bitartean, San Isidro jaiak ospatuko dituzte Andra Marin. Herrien Jaialdia ere egingo du Itxas Argia taldeak.

LEIOAKO MENDIBILE JAUREGIA | 6

**UDALARENA IZAN ARREN,
EZ ZAIO DOAN IRTETEN**

Ekitaldiak egiteko alokairua ordaindu behar izaten du Leioako Udalak. EH Bilduk «herritarrentzat berreskuratzea» eskatu du.

UMORE AZOKA LEIOAN | 10

**ANTZERKIA, DANTZA ETA
ZIRKU GARAIKIDEA**

Aurtengo kaleko artisten azokan ehun emanaldi baino gehiago egingo dituzte Euskal Herriko zein beste herrialdeetako 40 taldek.

Kartzelaldi luzeak, urrun eta

ETA desaginda, euskal preso, iheslari eta deportatuak herriratzea da konponbiderako prozesuaren erronketako bat oraindino. Uribe Kostako 20 lagun daude espetxeratuta, Euskal Herrian zein frantziar eta espainiar estatuetan; baita deportatu bat ere, herritik milaka kilometrora.

TESTUA: IKER RINCON MORENO INFOGRAFIA: ARTEFAKTO ►

Jarduera armatua behin betiko eten zuen ETAk 2011n; joan den maiatzaren 3an, aldiz, erakundeak desagitea erabaki zuen, ia 60 urtez bizirik egon ostean. «ETA herritik sortu zen eta orain herrian urtuko da» esanez iragarri zuen erakundeak audio bidez bere desagitea. Adierazpen historiko horretan, bere «egitura denak» desegin dituela jakinarazi zuten; hurrengo egunean, ostera, Kanboko Arnaga Jauregian egin zen ekitaldian ETAREN amaiera ofizialki ziurtatu zuen euskal ordezkari politiko zabal batek.

Fase berri batean murgildu da gizartea; hala ere, euskal preso, iheslari eta deportatuak herriratzeko erronka indarrean dago oraindino. Etxerat elkarteak apirilean emandako datuen arabera, denera 278 gizon-emakume daude espetxeratuta, herritik ehunaka kilometrora, Portugalgo (1) eta espainiar (227) eta frantziar (50) estatuetako kartzelatan. Horietatik denetatik, hamasei dira eskualdekoak; hala ere, Uribe Kostako beste lau gizon-emakume ere badaude espetxeratuta, Euskal Preso Politikoen Kolektibotik (EPPK) kanpo. Bestalde, Sao Tomen deportatuta dagoen pertsona bat eta ihes egin behar izan duten pertsona bi daude uribekostarren artean.


Felipe González-en gobernuak ipini zuen dispersioa, 1989an, eta ordutik preso gehiengoa bere jaioterrietik 400 kilometro baino gehiagora dago espetxeratuta. Frantziako Gobernuak lehenagotik hasi zen politika hori ezartzen; dena dela, iazko apirilaren 8an ETA armagabetzearen ondorioz, Frantziako Gobernuak jarrera aldatu zuen. Urtarrilean iragarri zuen Frantziako Estatuan sakabanatuta zeuden presoak Lannemezango eta Mont-de-Marsango espetxeetara hurbilduko zituela. Harrezkero, hamabi preso lekualdatu dituzte; hamaika kartzela bi horietara, eta bat Muretera. Horien artean dago Asier Borrero algortarra, Poissytik Mont-de-Marsango espetxera lekualdatu baitzuten joan den apirilean. Uribe Kostako Etxerat elkarteak kideek adierazi dutenez, hurbilpen horien gehiengoa laster libre geldituko direnei lotuta dago, baina erabaki hori aurrerapauso bat dela azaldu dute. Dena dela, momentuz gizonezkoak soilik hurbildu dituztela deitoratu dute: «Lotsagarria eta salagarria da, oraindino ez dute emakumerik gerturatu».

Espainiako Estatuaren kasuan, preso senideek ez dute uste gauzak asko aldatuko direnik espetxe politikan, ez behintzat epe laburrean. «Mendekua eta ankerkeria oso ezarrita daude, biktimen elkarreetan zein gobernuan», deitoratu dute. Gogoratu dutenez, ETAk bere jardun armatua behin betiko etengo zuela iragarri ondoren, PPren Gobernuak adierazi zuen presoak gerturatzeko nahitaezko baldintza zela erakunde desagitea. Eguna heldu da, baina Madrilek ez du halako keinurik egin oraindino. Are gehiago, azken egunotan hainbat hedabidetan Juan Ignacio Zoido Espainiako Barne ministroak adierazi duenez, egoera berri horrek ez du eraginik izango espetxe politikan. Ordea, ñabardura bat egin zuen: Madrilek ez duela egingo «legeak jasotzen ez duen ezer». Eta adituek diotenez, legeak ematen du politika hori moldatzeko tarte; izan ere, gogoratu beharra dago Espainiako legediak ipintzen duela presoek euren familietatik hurbilen dagoen espetxean bete behar dutela zigorra.

ESKUALDEKO PRESOEN EGOERA, SENIDEEN AHOTIK. EPPK-ko Uribe Kostako hamasei gizon-emakume daude espetxeratuta, hamabost Espainiako Estatuko hamahiru kartzelatan sakabanatuta eta bakarra Frantziako Estatuko batean. Espetxe horietatik, Cádiz-en dagoen Puerto III-ren isolamendu-modulua Espainiako Estatuko «gogorrena»

Preso bakoitzaren izenagaz batera, jaioterria, espetxeratze-urtea, gaur egun dagoen kartzela eta harainoko distantzia ageri dira.

- EPPK-ko kidea
- EPPKtik kanpo



espetxe-onurarik gabekoak

278

preso daude EPPKren barruan, Etxerat elkarrearen azkenengo zenbaketaren arabera. Gehienak frantziar eta espainiar estatuetan daude sakabanatuta. Portugalen bakarra dago.

%88

EPPK-ko kideen portzentaia hori dago lehenengo graduan, hau da, presondegierregimenik zorrotzenez, inolako baimenik eta onurarik gabe. Hirugarren graduan ez dago inor.

110.112€

presoen senide denen artean aste bakar batean izaten duten gastua da hori, Sare Herritarrak emandako datuen arabera. Joan-etorri bakoitzean 275,97 euroko gastua edukitzen dute senideek.

16

pertsona hil dira senideak bisitatze bidean, dispertsioa ipini zenetik gaur egunera arte. Horien artean dago Anjel Figuroa preso algortarraren amama Antxoni Fernandez.



dela uste dute senideek, eta horretan dago Aitor Cotano. Etxeratekoek diotenez, barroteez gainera, zulo txiki ugari zeuzkan xafla bat jarri zizkieten presoek leihotetan, «ahalik eta argi gutxien sar zedin». Patioek ere ez dute eguzkia hartzeko aukerarik ematen, «oso estuak direlako».

Kordobako espetxealdia ere gogorra dela azaldu dute. Bertan dago Jabier Gallaga, Frantziar hamalau urte espetxeratuta egon ondoren. Bere amak azaldu duenez, kartzela horretan dauden kide denak daude isolamendu-egoeran, algortarra barne. Askotan egiten dituzte protestaldiak moduluetara eroateko, baina oraindino ez dute ezer lortu, deitoratu du presoaren sendiak. Iñigo Gutierrez algortarra ere zuzenean isolamendura eraman zuten Puerto I-en. Bere amak gogoratzen duenez, 40 eguneko eduki zuten egoera horretan.

Horrez gainera, ziegen baldintzak ere deitoratu dituzte senideek. Diotenez, porlanezko hormak dauzkate, neguan hotza eta udan beroa baino ez dutenak ematen. Gainera, horiek denek umeltasunak dauzkate salatzen dute: «Hormak beltz-beltz daude. Hori osasunerako oso-oso kaltegarria izan behar da». Labezomorro artean bizitzea ere normala dela iragarri dute. «Gauza bat da kondena bat bete behar izatea, eta beste gauza bat da zelan dauden. Ez da nahikoa espetxeratuta egotea, martiritzen ari dira», salatu dute senideek: «Ez dute eguzkia ikusteko aukerarik, hotza pasatzen dute, janaria oso txarra da eta zerumuga ikusteko aukerarik ez izateak ikusmena galtzea eragiten die, besteak beste».

Presoen egoera zein den salatzeaz gainera, senideek eurek ere pairatu izan dituztenak eta oraindino jasaten dituztenak ekarri dituzte akordura. Dispertsioak eraginda, urtean milaka kilometro egin behar izateaz gainera, askotariko kontrolak gaititu behar izan dituzte behin baino gehiagotan espetxera heldu ahal izateko. Modu berean, funtzionarioek eurekiko izan ohi duten jarrera salatu dute askotan: «Inolako arrazoi barik arakatzen gintuzten, batzuetan modu integratzen gainera». Patxi Markesen senideek oroitu dutenez, orain dela sei urte ia hamar hilabete eman zituzten Albocasserren aurrez aurrekoetara joan ezinik. Izan ere, miaketei uko egiten zieten, eta hori eginez gero, bisita barik gelditzen ziren. «Egoera hori guretzat zen bakarrik, preso sozialen kasuan ez zen halakorik gertatzen».

HOGEI URTE BAINO GEHIAGO LEHENENGO GRADUAN. Etxerat elkarrearen datuen arabera, EPPK-ko 45 presok hogeit urte baino gehiago daramatzate giltzapean. Horietatik lau uribekostarrak dira eta beste bik aurten beteko dituzte hogeit urte espetxean, ekainaren 5ean, hain zuzen ere. Baina, horietatik denetatik, bakarrik lortu du bigarren gradua: Urko Labeaga sopeloztarra. Denera, EPPK-ko presoen %88 dago lehenengo graduan, hau da, presondegierregimenik zorrotzenez, eta bakar bat ere ez dago hirugarren graduan, espetxetik behin-behinean irteteko aukera ematen duena, alegia.

Espainiako Barne Ministerioaren martxoaren datuen arabera, Administrazio Zentralak kudeatutako espetxeetan dauden 50.957 presoen artean %1,7 baino ez dago lehenengo graduan; kopuru horietatik, %23 euskal presoek osatzen dute. Senideek jakinarazi dutenez, Bizkaikoak diren 85 kidek egin dute lehenengo gradutik bigarren gradura jaisteko eskaera, baina oso gutxi onartu ditu espetxe-zaintzako epaileak, «nahiz eta denek bete beharreko baldintzak betetzen dituzten», deitoratu dute Etxeratekoek: «Denei erantzun berdina eman diete, erakundeaz arnegatu ez dutela eta ez dutela barkamenik eskatu. Baina Legediak ez du hori eskatzen».

GETXO | San Isidro jaiak

Baserritarren omenezko festa

Barikutik martitzenera bitartean izango dira San Isidro jaiak Getxon; askotariko ekimenek osatuko dute egitaraua.

IKER RINCON MORENO ▶

Apurka-apurka jaien usaina hedatzen dabil Getxo inguruan. Izan ere, udaren atarian, maiatzaren erdialdean, helduko dira San Isidro jaiak herrira: nekazari, laborari eta baserritarrei omenaldia egiteko ospakizunak, alegia. Aurton ere Geroako ikasleek irakurriko dute pregoia, txupina jaurtitzeaz gainera, hilaren 11n, 17:00etan. Horren ondoren, ekitaldiz beteriko lau eguneko egitarauari helduko diote auzokideek, askotariko herritarrek osatutako jai-batzordearen ekimenez. Horrenbestez, gazte zein nagusi, inguruotan aspertzeko tarterik ez da falta: egunotan: herri-bazkariak, jokoak, mus-txapelketa, herri kirolak, dantzaldiak, grafi-tiak, kontzertuak...

Jai-batzordeko kideek gogoratu dutenez, zapatuan auzora baserritarrez jantzita hurreratzeko deialdia eginda dago. Aurten ere gaueko autobus-zerbitzua egongo da sanisidroetan, auzoko konexioa hobetzeko eta etxera bueltako bidea lasaitasun osoz egin ahal izateko. Zerbitzu hori guztiz doakoa izango da. Modu berean, jakinarazi dute barikuan eta zapatuan txosnak goizeko ordu txikietara arte egongo direla zabalik, 06:00ak arte, alegia.

Barikua, zapatua eta domeka izango dira egunik mamitsuenak. Domekatik martitzenera bitartean, aldiz, ez da ekitaldirik egongo auzoan; hala ere, San Isidro egunean, bertara hurreratuko diren denentzat hamai- ketakoa eta idi-probak egongo dira, festei amaiera hobeezina emateko. ◀



Zapatuko herri-bazkaria baserritarrez jantzita hurreratzeko deia egin du jai-batzordeak. HIRUKA

Egitaraua

Maiatzak 11, barikua

17:00 Txupinaren jaurtiketa eta pregoiaren irakurketa, Geroako ikasleen eskutik, Malakaten.
17:00 Mural-margotzeak, Bentan.
17:30 Parkean Olgetan, Sendiren eskutik, Malakaten.
17:30 Txokolate-edana, Malakaten.
17:00 Kiniela paleta-goma, kiroldegiko frontoian.
18:30 Buruhandiak, Malakatetik hasita.
19:00 Mus txapelketa, Bentan.
19:00 Areatxu fanfarrea, kalez kale.
21:00 Kontzertuak: Skabidean, Mr Pongo eta erromeria, kiroldegiko aparkalekuan.

Maiatzak 12, zapatua

10:30 Umeentzako talo eta bitxi tailerrak, Argia Fundazioaren eskutik, Malakaten.
11:00 Puzgarriak, Malakaten.
12:00 Txopolis fanfarrea, kalez kale.
12:00 Txangoa Tosu ingurura.
13:00 Herri kirolak, kiroldegiko probalekuan.
15:00 Herri-bazkaria, auzo elkartearen eskutik, kiroldegiko aparkalekuan.
17:00 Umeentzako ginkana, kiroldegiko sarreran.

19:00 Poteo girotua, bazkalondotik.
19:30 Zumba Rosigaz, Malakaten.
20:00 DJ Deustoo!, Malakaten.
21:00 XXV. Herrien Jaialdia, Itxas Argia dantza-taldearen eskutik, Kiroldegiko frontoian.
23:00 Kontzertuak: Erasoka, Sumision City Blues eta Item No, kiroldegiko aparkalekuan.

Maiatzak 13, domeka

10:00 Bertoko ekoizleen azoka, Uribe Kostako Agroasanbladaren eskutik, Kiroldegiko aparkalekuan.
11:00 Umeentzako argazki-tailerra, Sendiren eskutik, Kiroldegiko aparkalekuan.
11:00 XXVIII. Isidro Deunaren Eskupilota Txapelketako finalak, afizionatuak eta elitea, kiroldegiko frontoian.
12:00 Andres Isasi Musika Eskolako Martxing Band, Malakatetik hasita.
13:30 Kontzertua: Cloverwind, kiroldegiko aparkalekuan.
17:30 Dantza-plaza, Dangelisgez, kiroldegiko aparkalekuan.
18:00 Patinaje Show Getxo, kiroldegiko frontoian.
18:00 Umeentzako paintball, elizako zelaian.

Maiatzak 15, martitzena

12:45 Hamaiketakoa, elizaurrean.
18:00 Idi-probak, kiroldegiko probalekuan.

ADOS
i2

el almacén

ZUMBA
ETA ASKOZ ERE GEHIAGO

MAIDAGAN KALEA, 45
- KOOPERATIBA ZAHARRA -

ARROPA DENDA

BIDEZABAL KALEA, 32

GETXO

I
S
L
A



harategia - urdaitegia

MAIDAGAN KALEA, 51 • 48993 • GETXO
T: 944 911 510

GETXO | Itxas Argia dantza-taldearen XXV. Herrien Jaialdia

Bretainiako eta Euskal Herriko dantzak, berriro ikusbide

Herrien Jaialdiaren 25. edizioa ospatzeko, atzeritik gonbidatutako lehenengo taldea ekarriko du berriro Itxas Argia taldeak hilaren 12an. Jaialdia Andra Mariko frontoian egingo da, 21:00etatik aurrera.

IKER RINCON MORENO ►

Urtero legez, Herrien Jaialdia antolatu du aurten ere Getxoko Itxas Argia dantza taldeak. Oraingoa XXV. edizioa izango da, eta Getxoko San Isidro jailetako zapatuan egingo dute dantzaldia, hilaren 12an, hain zuzen. Hala ere, antolatzaileek iragarri dutenez, aurtengo saioa berezia izango da, zilarrezko ezteiak behar bezala ospatu behar direlako. Hori dela eta, atzeritik gurera gonbidatu zuten lehenengo taldea ekarriko dute berriro ospakizunerako. Bretainiatik etorri ziren duela 23 urte lehenengoz, eta aurten bueltan izango dira Dansarien Bro Klegereg dantza taldea eta Kebrenn Bro Lagunech musika taldea. Ohi bezala, emanaldia Andra Mariko frontoian izango da, iluntzeko 21:00etatik aurrera. Sarrera librea izango da, edukiera bete arte, antolatzaileek iragarri dutenez.

Herrien Jaialdia 1993an hasitako ibilbidea da, «Itxas Argia dantza taldearen egunerokoari bultzada bat eman eta Euskal Herriagaz loturaren bat duten bestelako herriakaz bat egin eta kultura biak batu guran sortutakoa», antolatzaileek azaldu dutenez. «Ideia buruan genduela, jarraian hasi ginen herri batzuekin harremanetan, hurbiltasuna zela medio, Galiziako eta Kataluniako talde banarekin, hain zuzen ere». Getxoko San Isidro jaiak aitzakiatzat hartu zuten jaialdi hori ospatzeko, garai horretan jaiok «erdi hilda» zeudelakoan. Lehenengo urte hartan Galiziako Brincadeira taldeak parte hartu zuen ospakizunean, eta antolatzaileek gogoratu dutenez, saioak oso harreman ona izan zuen hurreratu ziren herritarren artean. Talde bien arteko bizikidetzak ere gogoan daukate dantza taldekoek, «esperientzia oso ona izan zen». Hori dena dela eta, harrez geroztik urtez urte talde bat ekartzea erabaki zuten.

Itxas Argiakoei aitortu dutenez, batzuetan ezinezkoa izan da jaialdiaren jaiotzan izandako ideari eustea, baina kultura



1993an egin zuten jaialdia lehenengoz, eta ordutik urtez urte egiten jarraitu dute. © ITXAS ARGIA

Jaialdiaren helburua da dantza taldearen egunerokoari bultzada ematea eta beste herri batzuen kulturak ezagutaraztea.

ezberdinak erakustearren eta batzearen aitzakia hartuta, talde gehienak prest agertu dira gaur egunera arte jaialdi horretan parte hartzeko. Horrez gainera, askotan getxoztarrek eurek bertoko kultura eta folklorea beste herri batzuetara eroan ahal izan dute, atzerriko hainbat lekutara. «Herriak elkartzeko eta harremanak egiteko hasi zen proiektua, Euskal Herriatik harago gure kultura, hizkuntza eta folklorea zabaltzeko, hurbiltzeko, erakusteko eta irakasteko, besteak beste», azaldu dute dantza-taldekoek.

Ibilbide horri eutsi dio taldeak 25 urteotan, eta urtemuga berezia ospatu guran, zer edo zer berezia egin behar zelakoan, hasierako urteetan ekarritako talderen bat berriro gonbidatzea bururatu zitzaientzen, Bretainiako Dansarien Bro Klegereg dantza taldea, alegia. Talde biek berriro ere elkartu gura izan dute, esperientzia polita izango delakoan. Izan ere, gaur egun beste pertsona batzuek osatzen dituzte taldeak, urteak aurrera joan ahala belaunaldi berriek hartu baitiete lekukoa hasierako garai haietako dantzarietara. ►

AZKAYO eraikuntzak
1980TIK ERAIKUNTZAREN MUNDUAGAZ LOTUTA

Ilusioz beteta egiten dogu behar gehien atsegin dogun horretan.

jah eta jolas
janetajolas.com

Zure urtebetetze eta ospakizunetarako lekuri egokiena!
Zuk antolatu edo gure esku utzi.

Askotariko ekintzak eskaintzen ditugu:
ginkana, sukaldaritza-tailerra, disko-festa...

609 671 258 • Iturribide, 13 - Getxo

LEIOA | Jabego publikoaren erabilera

Mendibile Jauregiaz baliatzea ez zaio doan ateratzen Udalari

Bertan ekitaldiak egiteko, alokairua ordaindu behar izaten du Udalak. Leioako EH Bilduk salatu duenez, «publikoa izan arren, ez du erabilera publikorik». Gaztetxe ohia «herriarrentzat berreskuratzeko» eskatu dute.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Apirilaren 26an egin zuten hileko osoko bilkuran, Mendibile Jauregiari buruz galdetu zion EH Bilduk Leioako Udalari; izan ere, alderdi ezkertiarren bozeroalea den Aritz Tellituk kritikatuakoa arbera, eraikina aipatutako administrazio publikoarena izan arren, «ez du erabilera publikorik eta, Udalak erabiltzen duenean, alokairua ordaindu behar izaten du». Are gehiago, Mendibile Jauregiko inbertsioak ere leioaztar denek ordaindu behar izaten dituzte. Hori frogatzeko, 2018ko 847 zenbakiko dekretua mahai-gaineratu zuen Tellituk; horren arabera, ia 4.000 euro ipini zituen Udalak, jauregian konponketa-lanak egiteko.

Leioako EH Bilduren bozeroaleak gogoratu zuenez, Mendibile Jauregia gaztetxea izan zen hiru urte luzez, eta udalerriko gazteen topaleku bihurtu zen garai horretan. «Baina EAJk argi zeukan, eta Mendibilaren utzaraztea agindu zuen, Udalak jauregia ekintza kulturaletarako erabiliko zuela argudiatuz», adierazi zuen hautetsiak. Horrek mobilizazioak ekarri zituen, eta horien artean oihu ozen bat entzun zen: «Mendibile zertarako? Zuen patrikak betetzeko!». «Denborak Leioako gazte-riari arrazoiak eman dio. Udalak Bizkaiko Txakolina elkarte-gaz txakolinaren etxe bihurtu du jauregia, negozioarako txoko. Gaur egun, Mendibilek ez dauka kulturarik... eta gutxi batzuen negozioa ezagutzera emateko baino ez da erabili, herrian eragin soziokultural txikia izanik», deitoratu zuen EH Bildukoak.

«**ONDORIO ZUZENAK LEIOAZTARRENTZAT**». Mendibile gazte-txea 2000. urtean itxi zuen Leioako Udalak eta 2007ko mar-txoaren 30ean ireki zuen Mendibile Jauregia; Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Txako-lina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzailearen ekimenez, Mendibile Jauregia elkarte sortu zuten. Bada, EH Bilduren



Gaur egun, Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren eta horren Kontseilu Arautzailearen egoitza dago bertan. HODEI TORRES

«**Mendibile gutxi batzuen negozioa ezagutzera emateko baino ez da erabili, herrian eragin txikia izanik**»

ARITZ TELLITU ZABALA
LEIOAKO EH BILDUREN BOZEROALEA

«**Eraikina Leioako herriaren ondarea da eta Leioako herriaren onerako erabili beharko litzateke**»

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
ESNATU LEIOAREN BOZEROALEA

ustez, izenpetutako hitzarmenak «ondorio zuzenak» dauzka leioaztarrengan: «Batetik, Mendibile Jauregiari ezin diogu era-bilera herritarra eman. Bestalde, Udalak ez du haren erabilera baliatzen. Eta azkenik, Udalak erabili behar duenean alokairua ordaindu behar du». Hori dela eta, egungo hitzarmena bertan behera uzteko eta Mendibile «herriarentzat berreskuratzeko» eskatu zuen Tellituk udal-batzarrean; «elkarteentzako etxe» bihurtu gura dute.

Esnatu Leioak ere EH Bilduk egindako salaketa-gaz bat egin du. Alderdi horren bozeroalea den Ruben Belandian berbe-tan, «Mendibile jauregia Leioako herriaren ondarea da, eta Leioako herriaren onerako erabili beharko litzateke». Gaine-ratu duenez, «Gobernu Taldeak nahiago izan du kanpoko era-kunde baten egoitza izatea; txakolinaren etxea izateak ez du eragin handirik izan gure udalerrarentzat eta ez du sinergia-rik sortu». Udal Gobernu osatzen duten EAJk eta PSE-EEk ez dute adierazpenik egin gai honen gainean, eta PPK ere ez du iritzirik eman. ◀

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR


BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

PUBLIERREPORTAJEA

Politeknika Ikastegia Txorierri

Mekanizazio birtuala: pieza konplexuak doitasun handiz mekanizatzea



Software-simulazioa murrizpen bidez.

Goierrri Eskolak eta Politeknika Txorierri burutuko dute proiektua. Kasu bietan mekanizazio-FPetako programak aurrera erooten dabiltza CNCa makinetan, baita ere CADCAMetako erreminta-erabilerarekiko programazioan. Lankidetzazubiak ere eraiki gura dira proiektu honen bidez, baliabideak optimizatzeko.

www.txorierri.net

**Eusko Jaurlaritzak
diruz lagundutako
ikastetxea**

Derioko Politeknika Ikastegia Txorierri gure hurbileko industriaren azken aldaketa teknologikoakaz bat egiten du. Gaur egun, mekanizazio-prozesuak guztiz informatizatuta daude; programa informatikoei esker, oso konplexutasun handiko piezak mekaniza daitezke sinestezinezko zehaztasunagaz. Goierrri Eskolagaz batera egiten dabiltzan proiektuaren bitartez, programak gauzatzeko behar den esperientzia lortu gura dute, eurakaz lankidetzan dabiltzan enpresa ugarien beharrei lehentasuna emateko.

Mekanizazioa birtualki egiteko aplikazio bat baino gehiago existitzen da. Horietako batzuek fabrikazio-mugimenduak simulatu besterik ez dute egiten. Konplexuagoek, ostera, erritmoak eta tresnen iraupena optimizatzeko aukera ematen dute; are gehiago, erabilitako mekanizazio-estrategiaren arabera piezaren gainazaleko akabera zelakoa izango den ere igar daitezke. Simulazio horien analisia eginez, prozesuak optimizatu eta hobetu daitezke. Hobekuntza hori prozesuaren parametroak aldatuz eta simulazioa berriz eginez lortzen da. Hala, behin eta berriro eginez, prozesua perfektionatzen dugu, hutsegiteak saihesten ditugu, eta lan-denbora eta kostuak gutxitu.

Formazioaren ikuspuntutik, birtualizatzeko aukera ematen du (kontrolak dibertsifikatu) ikasleari programazioaren kalitate handiko analisia eskaintzeko, balizko hutsegiteak murriztuz eta autonomia eta segurtasuna indartuz.

TKNIKAK (Lanbide Heziketako Ikerkuntza gunea), Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren menpeko zentroak, Politeknika Ikastegia Txorierri aukeratu du helburu horregaz. Sailburuordetzak gure ikastetxeko irakasle bat dauka liberatuta teknologia berri horietan treba dadin, behar den dokumentazioa presta dezan eta beste ikastetxe batzuetako irakasleak hezi ditzan.

Proiektuak honako atal hauek ditu: software aukeraketa; formazioa eta ezarpena; garapena; lan-prozedurak, eta hezkuntza-materiala sortzea.



**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**



Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DERIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net



Ikastegia ezagutzeko eguna
Ekainaren 7a (18:30ean)

ZIENTZIA BATXILERGOA

LHko HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio Teknikaria Erdiko Maila (2000 o.)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)
- Produzioaren Programazioko Goi-mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi Mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)

**Zatoz gure instalazioak, tailerrak
eta laborategiak ezagutzera**

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Industria Robotikako Goi-mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetak Goi-mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmentak eta Merkataritza Espazioak Kudeatzeko Goi-mailako Teknikaria Goi Maila (2000 o.)



«Agerian justizia pa zer irudi ta duen sexu

Euskal Herriko mug
gaur egungo errefe
da June Fernández (1
eta Getxon hazitako
borrokaren zenbai

TESTUA: UNAI B

Lehen urratsak *El País* egunkarian egin ostean, SOS Arrazakeria elkarteko liberatu jardun zuen hiru urtez. Orain dela zortzi urte *Pikara Magazine* aldizkari feministaren sorreran parte hartu zuen, eta bertako koordinatzaileetako bat da gaur egun, hainbat hedabidetan kolaboratzeaz gain. *10 ingobernables* liburua argitaratu zuen 2016an.

Zoritzarrez «La Manada» auziaren epaiaz galdetzen hasi behar gara. Zer eragin dizu? Uf, emozio asko, eta kontraesanak. Hasieran apatia moduko bat, sentitu nuen justizia patriarkalarengan konfiantza guztiz galduta neukala. Egon dira sexu-indarkeriarekin lotutako beste epaiketa batzuk, eta banekien justizia patriarkalak ez duela irtenbide egokia ematen, epaileek ez dutelako genero-ikuspegia barneratuta. Uste dut sententzia honetan ere ikusi ahal izan dugula sexualitateaz daukaten irudia tamalgarria dela. Hala ere, agian martxoaren 8ko bultzadarekin, jendea kalera atera da, eztabaida sozial handia piztu da, eta horrekin pozik nago. Sektore askotako jendea zigor-kodea aldatzeko eskatzen ari dira orain. Ea zer gertatzen den.

Genero-disidente denak dira biktima

Martxoaren 8ko greba-deitzaleek argitu zuten «emakume» terminoa esangura politikoagaz erabiltzen zutela, baina genero-nortasunaren errealitatea gizon-emakume zatiketa baino askoz konplexuagoa dela gogoraraziz. «Euren burua emakumetzat ez duten genero-disidenteak ere grebaren subjektuak zirela esan zuten, eta nik asko eskertu nuen ñabardura hori», dio June Fernándezek. «Garrantzitsua da ulertzea patriarkatuaren biktimak emakumeak garela, eta sexu-disidenteak ere bai. Gizon sentitzen den transgenero bat greba feminista bateko subjektua ez dela uste badugu, ez dugu ezer ulertu».

Aurretik egindako lan hori barik hainbesteko erreakziorik ez zela egongo uste duzu, kasua oso berezia izan den arren?

Hala pentsatzen dut, bai. Ezinegon moduko bat dago, «ez dugu bat bera ere gehiago onartuko» esanez edo. Eta horrekin lotuta, eztabaida interesgarria daukagu *Pikaran*: «Justizia patriarkalak ez bagaitu babesten, zein da bidea?». Mugimendu feministan autodefentsaren alde egiten da, baina zertan datza autodefentsa, zeintzuk dira haren mugak?

Eta zeintzuk dira? Alde batetik ekintza zuzenaren gaineko eztabaida dago: eskratxeak, tipo hauen eta epaileen argazkiak kaleratu eta sare sozialetan zabaltzeak... Zer balio du horrek, interesgarria da? Horrez gain, egunero autodefentsa-estrategien gaineko irudiak ikusten ditugu sare sozialetan: pipermin-spray bat nola egin etxean, eta halakoak. Beste alderdi interesgarri bat da seme-alabak dituzten feministek egiten dituzten galdera: «Nola azaldu nire 11 urteko alabari zer egin behar duen bizitzan?». Noski, autodefentsa feminista ez da fisikoki erasotzaileari aurre egitea soilik, neure burua zaintzeko eta segurtasun fisikoa ere edukitzeko estrategia emozionala garatu behar dut.

geratu da patriarkalak amalgarrira kalitateaz»

gimendu feministaren
erentzia nagusietakoa
Bilbo, 1984), Berangon
kazetaria. Emakume-
t gako z jardun dugu.

REA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Reggaetoia eta matxismoa

Martxoaren 1ean Plentziako Danontzat Gaztetxean egon zen June Fernández, *Si no puedo perrear no es mi revolución* berbaldia ematen. «Izen bereko artikulua bat idatzi nuen blogean. Reggaetoi gehiena patriarkala dela egia da, baina hori musika-genero guztietan gertatzen da. Kontua da reggaetoiari arreta handiagoaz begiratzen zaiola, eta horrek klasismoarekin eta xenofobiarekin zerikusia daukela. Kultur produktu arrotzetan errazago atzematen da matxismoa».

Autodefentsaz

«Justizia patriarkalak ez bagaitu babesten, zein da bidea? Autodefentsaren alde egiten dugu, baina zeintzuk dira haren mugak?»

M8aren aztarnak

«Jakín nahi nuke M8an feminismoarekin bat egiten hasi diren emakumeen bizitza nola aldatu den, etxean, lan-esparruan...»

Heziketa matxista

«Gizon bat etortzen bada nirekin ligatzera eta ez badu nire jarrera irakurtzen, hori ez da baldarkeria, hori heziketa matxista da»

Emakume zuri feministaren pribilegioak

Pikara aldizkarian (baita June Fernándezek beste hedabideetan idazten dituen artikuluetan) oso eztabaida interesgarriak piztu dituzte feminismoagaz lotutako eguneroko gauza txikiei lotuta: «Oharkabeen pasatzen diren ohiko dinamikei arreta ematea gure arrakastaren gakoetako bat izan dela uste dut. Nola bizi dugun emakumeok gauean bakarrik ibiltzea, janzkera, depilazioa... Hori ona da, baina arriskua dago emakume pribilegiatuak eguneroko jasaten dituzten matxismo txikietan arreta ipini eta sistemaren bortizkeria super-basatia albo batera uzteko. Ondo neurtu behar da zer mezu ematen den. Hedabideetan patriarkatuaz hitz egitean, diskurtsoa emakume pribilegiatuengandik dator askotan. Emakume beltz eta ijitoek, transexualek... emakume normatiboek egiten dieten kritika da».

Martxoaren 8ko greba historikotzat jo izan da, mobilizazioetan parte hartu zuten emakume kopuru handiagatik. Zein da balorazio kualitatiboa? Niretzat interesgarria izango da ikustea M8aren inguruan zer sortu zen eta zerk irauten duen. Kazetarien artean, Espainiako Estatuan, *Las periodistas paramos* agiria plazaratu zen; uste dut 8.000 lagun inguruk sinatu zutela, eta aurrekoan mezu bat bidali zuten maiatzean batzarra egingo dutela esanez. Hau da, mugimendu egonkorra sortu dute. Entzun dut greba feminista antolatzeke aitzakiarekin ikastetxe eta herri askotan talde feministak sortu direla. Niri gustatuko litzaidake jakitea feminismoarekin bat egiten hasi diren eta kalera atera ziren emakume horien bizitza nola aldatu den, euren harremanetan, etxean, lan-esparruan... Hau da, ahalduntze-prozesu horrek zer fruitu emango duen gerora. Horretarako denbora beharko dugu.

Pikara Magazine erreferente bihurtu da feminismoan, baita iritzi-sortzaile modura ere... Aldizkaria sortu genuenean asmo bikoitza geneukan: mugimendu feministarentzat eztabaida-esparru izatea, eta askotariko korrante feministen topagunea. Beste alde batetik, feminismoarekin guztiz bat egiten ez zuen jendea erakarri nahi genuen. 2010ean sortu zen *Pikara*, eta orduan hedabide tradizional hegemonikoek ez zituzten emakumeen eskubideen gaineko gaiak asko lantzen. Gaur egun hori aldatu egin da; hedabide hegemonikoetan ere agertzen dira youtuber feministak, feminismoaren agendarekin zerikusia duten gai ugari... Orain ezin dugu esan feminismoa hain estigmatizatuta dagoenik, orain eztabaida da ea onuragarria den ala ez Beyoncé aldarrikatzea bera ere feminista dela, edo H&M kamiseta feministak saltzea. Agian gure lana, mundu guztia feminismoaz hitz egiten ari den honetan, ikuspuntu kritikoa sakontzea da. Ikusten ari gara oraindik oso patriarkalak diren hedabideek feminismoa erabiltzen dutela irakurleak erakartzeko. Alde batetik ona da, baina bestetik feminismoa hutsaltzea ekar dezake.

Askotariko jendearengana heltzeko asmoa daukazue, baina askorentzat zuen mezua muturrekoa da oraindik. Adibidez normala iruditzen zaigu «La Manadaren» epaiak eskandalu soziala eragitea, baina gero inork mikromatxismoak salatzen dituenean... «Hara, esajerazioa». Zer diozu? *Pikara* barruan askotariko jendea dago eta diskurtso bat baino gehiago egon daiteke, bata instituzionalagoa, beste batzuk erradikalagoak edo... Mikromatxismo terminoa Luis Bonino izeneko psikologo batek proposatu zuen 90eko hamarkadan, eguneroko matxismoa identifikatzeko bikote heterosexualaren testuinguruan. Boninok dio 90eko hamarkadan mikromatxismo modura definitzen zuena gaur egun matxismo bortitza daukagula. Jendearen pertzepzioa aldatuz doa denboraz, eta beharbada orain dela bost urte esajeratuak ginen sanferminetako txupinazoko irudiak salatzeagatik, eta gaur egun gero eta jende gehiagok du argi emakume batek gorputza erakusteagatik inguruko gizonen ez daukatela ukitzeko eskubidea.

Ahots kritiko batzuek esaten dute martxa honetan edozein gizon-emakume interakzio joko dela mikromatxismotzat. Argudio hori tranpatia da. Indarkeria edo jazarpen matxistan, gakoa da gizonak badakiela botere-harreman bat ezartzen duela eta emakumea ez dela eroso sentitzen. Gizon matxistarentzat gozamina da sentitzea egoera deserosoan jartzen duela emakumea. Nik horrela bizi izan dut beti. Eta falazia bat da baldarkeria erabiltzea aitzakia modura. Irratian entzun dut «La Manadaren» auzian epaile batek absoluzioaren aldeko botoa eman izana hanka-sartzea izan zela, baldarkeria. Eta ez da baldarkeria, ideologia matxista baizik. Egunerokoan gauza bera. Ni taberna batean banago, gizon bat etortzen bada nirekin ligatzera, eta ez badu nire jarrera irakurtzen, ez badu nirekiko grina enpatikorik, hori ez da baldarkeria. Hori heziketa matxista da, eta nire desioak kontuan ez izatea. Agian aldarrikatu behar dugu ez bakarrik emakumeak ahalduntzea, baizik eta gizonen enpatia gehiago lantzea. ◀

«La Manadaren» epaian ikusi dugu epaile batek esan duela sexu-erasoa izan dela erabakitzeke erresistentzia egin behar dela, baina eginez gero hil egingo zaituzte. Kontraesan hori egunerok lantzea erronka da.

Mugimendu feministan oso iritzi desberdinak daude gaiak? Betidanik feminismoa oso plurala da eta badaude ekintza zuenaren alde egiten duten taldeak, eta horren argi ez daukatenak. Ez dakit gogoratzen dituzun «beldurra alde aldatuko da» manifestazioak. Autodefentsaren estetika jakina bultzatzen zuten: kaputxak, suziria, danborrak... Erasotzaileei beldurra eragitea zen asmoa, eta horren aurrean beste ahots feminista batzuek esan zuten agian ez zutela bat egiten kode horiekin.

Kode maskulinoak direlako? Erasoa, oldartzea... Hori alde batetik. Eztabaida asko egon ziren, ea feminismoaren bakezaletasuna nabarmendu behar den, edo indarkeria «bergeuregatu», nolabait esateko. Adibidez Maitena Monroy autodefentsa-prestatzaileak zioen beste aldera aldatu behar duguna ez dela beldurra, lotsa baizik.

KALEKO ARTEA | Leioako Umore Azokaren 19. edizioa

Sormena eta harritzeko gaitasuna

Aurtengo Umore Azokan ehun emanaldi baino gehiago egingo dituzte Euskal Herriko zein beste herrialde batzuetako 40 kaleko artista taldek Leioan. Antzerkia, dantza eta zirku garaikidea izango dira ardatz nagusiak.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Maiatzaren 17tik 20ra arte Umore Azokaren 19. edizioa egingo dute Leioan. Udalak antolatutako kaleko artisten azokan, goi-mailako ikuskizunez osatutako egitarauaz gozatzeko aukera egongo da: Euskal Herriko txoko askotatik zein munduko beste hainbat lekutatik etorritako 40 konpainiak ehun emanaldi baino gehiago egingo dituzte. Egun horietan Leioara hurreratzen direnek erabateko hamahiru estreinaldi ikusi ahal izango dituzte, estatu mailako lau estreinaldi eta «kaleko» beste lau ere bai.

Programazioaren eta aukeraketa artistikoaren arduradun legez, Ana López Asensio Leioako Udaleko Kultura eta Gazteria Saileko zuzendariak jarduera-programaren kalitatea eta aniztasuna azpimarratu ditu; parte hartuko duten konpainiak 500 proposamen baino gehiagoren artean aukeratu dituztela gogorarazi du. Hain zuzen ere, Lópezek azpimarratu duenez, «kale-arteak guztiz aldatu dira» Umore Azoka egin zuten lehen-dabiziko urtetik gaur egunera: «Lehen antzerkia zen nagusi, kalean; baina, gero eta gehiago nabaritzen hasi da zirkuak eta dantzak konkistatu dituztela herriguneak». Umore Azokak jasotako eskaeretan ere diziplina ugari batzen dituzten proposamenak nagusi dira. Udal-arduradunaren arabera, «moldatzeko gaitasun hori da kaleak daukan abantaila».

EUSKAL HERRIKO 21 TALDE. Umore Azokaren 2018ko programazioak ehun emanaldi baino gehiagotara hurreratzeko aukera ematen du, horietako asko erabateko estreinaldiak. Aurten ere antzerkia, dantza eta zirku garaikidea izango dira ardatz nagusiak, baina, magiarako, umorerako eta su-ikuskizunetarako ere lekua egongo da. Sorkuntza-sektorearen ikuspuntutik, Leioako feriak Euskal Herriko kaleko arteen funtsezko erreferentzia izaten jarraitzen du. Parte hartuko duten 21 euskal konpainietatik (EAEko 18, Ipar Euskal Herriko bi eta Nafarroako bat), hamabost orain arte ikusi gabeko obrakaz etorriko dira: hurrenez hurren, erabateko hamaika estreinaldi, estatu-mailako estreinaldi bat eta kaleko beste hiru. Horien artean daude clown eta masta txinatarraren tekniketan oinarrituta Aimar&Cía konpainiak aurkeztuko duen *Etxea/Casa/Home*; Barsantiren *Kale Gorrian/El deshaucio*, gaur egun puripurian dagoen gaia lantzen duen antzezlan; Bulevarden misterioaren karpa ipiniko duen Dramagiaren *Los misterios de Mr. Blanco*; 50 metro koadroko inperio ñimiñora eroango gaituen Ganso & Cíaren *Babo Royal*; *Jule*, Hortzmugaren azken lana; eta panpina errealista baten bitartez Iñaki Matak egiten duen ikus-poesia proposamena.

Horrez gainera, estreinaldiak izango dira: gastronomiaren, naturaren eta teknologiaren arteko elkarrekintza proposatzen duen Markeliñeren *Chef Natura*; teknologiagaz eta ezezaguna denagaz daukagun erlazioan oinarritutako *Tria*, Node Akzio-na! taldearena; dantza garaikidea eta break-dancea uztartzen dituen Ozkolen *Proyecto Larrua*; The Funes Troup taldearen *Aukerak* zirkuak pieza; eta Tio Teronen Semeak konpainiaren asmoak argi eta garbi erakusten dituen *Festamentua*. Bestalde, estatu-mailako estreinaldia izango da Elirale taldearen *Bihotz2* proposamena. Azkenik, orain arte taularatu ez diren lanen artean daude honako hauek: Krego-Martín Danzaren *Moliendo*



Arte eszenikoen zaleentzat hitzordu garrantzitsu bihurtu da Leioako kaleko artisten feria. HODEI TORRES

500

proposamen baino gehiagoren artean aukeratu dituzte aurtengo Umore Azokan parte hartuko duten konpainiak eta artista-taldeak.

40

konpainiak ehun emanaldi baino gehiago egingo dituzte. Horien artean, erabateko 13 estreinaldi egongo dira.

37.000

ikusle baino gehiago egon ziren iaiz Leioako Umore Azokan.



INFO+

QR hau eskaneatu parte hartuko duten talde denak ikusteko

café, Lasalaren *Microclimate*, IU eta *Female*, eta Pez Limboren *Óxido*, umore garratza/humor corrosivo antzezlanak. Ana Lópezek dioenez, «badakigu Umore Azoka ezinbesteko hitzordua dela Euskal Herriko kaleko arteen kolektiborako, eta horregatik, hain zuzen ere, esfortzu handia egiten dugu hemen egiten diren sorkuntza-lan gehienek Leioako kaleko arteen azokan euren erakusleihoa izan dezaten».

KALITATEA, EZINBESTEKO OSAGAIA. «Herritarrentzat eta profesionalentzat kaleko arte eszenikoen erakusleihoa izatea da Umore Azokaren helburu nagusia», López Asensioren arabera. «Baina azoka on bat edukitzeko eta profesional ugari erakartzeko, kalitatea ezinbestekoa da», zehaztu du Kultura eta Gazteria Saileko zuzendariak. Horrek bertara hurreratzen den ikusle kopuruagaz ere zerikusia dauka. Iaz 37.000 lagun baino gehiago egon ziren Leioan, Azokako ikuskizunez gozatzen: «Izugarria da azken zortzi urteetan erakarri dugun jende-kopurua; zalanza barik arte eszenikoen zaleentzat hitzordu garrantzitsu bihurtu da Umore Azoka», aipatu du López Asensiok. Gaineratu duenez, «sormena, harritzeko gaitasuna eta antzeztzen duten profesionalak zein antzezttera ez datozenak elkartzen dira lau egunez; izan ere, gero eta gehiago etortzen dira Leioako azokara antzezlanak aukeratzera, akordioak ixtera eta kontratazioak egitera».

Aurten aurreikusi diren jarduera paraleloen artean hainbat erakunderen batzarrak egongo dira: Antzokien Euskal Sarea-rena eta Kaleko Arteen Profesionalen Elkartearena, besteak beste. Gainera, Artekale-Sarea topaketaren hirugarren edizioa egingo dute, eta Euskadiko Dantza Profesionalen Elkartek katalogoa aurkeztu du. Bestalde, ohikoa den legez, Umore Azokak irauten duen bitartean, Kultur Leioa etenik gabeko topaketa profesionalerako puntu bihurtuko da, Artekale espazioaren bitartez. Maiatzaren 18an banatuko dituzte 2017ko Umore Azokaren sariak, 14:30ean, Mendibile jauregian; Umore Azoka 2018 Sari Berezia ere bertan emango dute. ◀

URIBE KOSTA | Bizkaia Kirola Sariak

Egindako ahaleginaren ordaina

Oinarritzko kirolean egindako lana eskertu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak apirilaren amaieran, Bizkaia Kirolak Sariak direla medio. Garaikurren erdia baino gehiago eroan zuten kirolari uribekostarrek, tartean Maider Santxok.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Bizkaia Kirolak Sariak garaikurren eskualdeko irabazleak honako hauek izan ziren: kirol indibidualean, Xabier Pereda Elordui, Getxo Karate Klubeko kidea; bikotekako kirolean, Maider Santxo Soto eta Kattalin Garcia Lopategi, Getxo Aixerrota Boleibol Kirol Taldeko partaideak; talde-kirolean Ane Ibarrondo, Maggy Musons, Naia Ibarrondo eta Arrate Lopez, Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarteko 4x50 errelebo libreko taldea; eta entrenatzaileen artean, Asier Elorduy Pintado, Getxo Karate Klubeko teknikaria.

Bilboko Miribilla auzoko Bizkaia frontoian egindako ekitaldian beste hauek ere izan ziren sarituak: oinarritzko kiroleko epailearen modalitatean, Iban Martinez Barredo; erakundearen artean, Javi Conde Basauriko Egokitutako Atletismo Kluba; eta, azkenik, zuzendaritzako pertsonalaren kategorian, José Antonio Goirigolzarri «Litri» Gaztedi sokatira-taldeko kidea.

Maider Santxo Soto (Barakaldo, 2000) boleibol jokalaria getxoztarraren arabera, saridunen erdia baino gehiago uribekostarrak izatea ez da kasualitatea: «Uste dut Uribe Kostan garrantzi handia ematen zaiola kirolari». Santxok nabarmendu duenez, ekimen asko antolatzen dituzte bertan eta kirola «sano bultzatzen da». Berbarako, «Faduran badaude mota denetako kirolak eta, normalean, bertan entrenatzen duen jendea oso ondo ibili ohi da Espainia mailan, ez bakarrik hemen». Errugbi-taldea eta arraun-taldea aipatu ditu, zerrenda luze baten hasiera modura.

Beraren ustean, «ia Getxoko talde denak oso goian dabilta Espainia mailan». Testuinguru horretan, Santxok eskertu du Bizkaia Kirolak Sariak bezalako ekimenak izatea, «kirolariak laguntzen dituztelako». Bere kasuan, ez zuen aurtengo saria espero: «Kristoren ezustekoa izan zen». Hala ere, gehien harritu zuena galara joan eta bertan hainbeste kirolari eta jende ikustea izan zen: «Baziren ere Getxon egiten diren eta nik ezagutzen ez nituen kirol batzuetako ordezkariak». Santxok dio Bizkaia frontoian ohartu zela «zenbat kirolari dagoen, eta ki-



Maider Santxo eta Kattalin Garcia dira hondartza-boleiboleko 19 urtez azpiko Espainiako txapeladunordeak. © EBF



Kirolzale denentzat eredugarriak

Bizkaia Kirolak Sariak ekimenean saritu zituzten oinarritzko kirolaren arloan jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eta bultzatzeko lanean nabarmendu direnak.

rolak zenbat jende mugitzen duen, gala guztiz beteta egon zen eta». Dena den, sariek lagundu arren, kirolaria da ahalegina egin behar duena, Santxoren iritziz.

Getxoztarra «urduri» dabil, Bigarren Batxilergoa amaitzen eta selektibitatea prestatzen, Aixerrota institutuan. Orain erronkatzat dauka «ikasketak kirolagaz bateratu ahal izatea, udari begira. Laster bukatuko dut selektibitatea eta egunero entrenatzen hasiko naiz, udan ahalik eta txapelketa gehien irabazteko». Zortzigarren urtea du boleibolean lehiatzen, eta joan den urtetik hondartza-boleibolean espezializatu da, «nahiz eta biak jokatzen ditudan». Gurago du udan kirola egitea, baina badaki horrek desabantailak ere badauzkala: negu osoa entrenatzen eta jokatu barik egon beharra dago, udan baino ez lehiatzeko. ◀

ROBIKAST

ROBOTIKA HEZIGARRIA

Ikaspenak sormenaz eraikitzen

material guztia gure esku

Tailerrak
Irakaslegoarentzat formakuntza
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztietara egokituta
Aholkularitza

RoBotiKa
pRograMazioa
3D inPriMaketa
eleKtroniKa

Email: info@robotikast.eus
Telefonoa: 688 637 331

www.robotikast.eus

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Kalitatea
ERASMUS+

BAI

Areeta
Lekoa
Bopeta

Guarderia

Out

KIVA

Algoria

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

SOKATIRA | Euskadiko Lur Gaineko Txapelketa

Bost txapel janzteko borrokaldia

Daborduko martxan da Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa. Bost txapel daude jokoan, hainbat pisutan. Goiherri, Getxo eta Akelarre dira eskualdeko ordezkariak; gainera, Laukizko Gaztedin hainbat uribekostar dabiltza lehiatzen.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Aurtengo Euskadiko Lur gaineko Sokatira Txapelketa joan den zapatuan hasi zen, Berriatuan, 680 kiloko kanporaketagaz. Proba horretan, ohi legez, Erandioko Goiherri A eta Laukizko Gaztedi A taldeak izan ziren protagonistak. Azkenean Laukizkoak nagusitu ziren, Uribe Kostako hainbat tiralari taldean edukita; jokaturako tiraldi denak irabazi zituzten Gaztedikoek. Goiherrikoak, ostera, bigarren lotu ziren, Gaztediren aurka izan ezik beste tiraldi denetan garaile suertatu baitziren. Hirugarren postuari dagokionez, Gaztedi Bk erdietsi zuen. Ondoren geratu ziren Mutriku, Getxo, Erandioko Alzaga taldearen barruko Akelarre taldea eta Gaztedi C, hurrenez hurren. 680 kiloko txapelketa Deban jokatu da, maiatzaren 19an. Litekeena da Goiherriko eta Gaztediko talde nagusien arteko norgehiagoka izatea; Laukizkoak Berriatuan lortutako abantailagaz jokatu dute.

BESTE LAU LEHIA, ABUZTURA BITARTEAN. Hurrengo txapelketa 640 kilokoa izango da. Horretan, talde berberak parte hartuko dute, maiatzaren 26a eta ekainaren 9a bitartean. Finala egun horretan jokatu dute, Martiartun. Hirugarren txapela 600 kiloko pisuko taldeen artekoa izango da; baliteke hor Goiherri bigarren talde bat aurkeztea, baina oraindino ez dago erabakita. Lehiaketa hori Barrikan hasiko da, ekainaren 16an; bigarren kanporaketa Algortan egingo dute ekainaren 23an eta, azkenik, finala Bilboko Etxebarria parkean jokatu da. Azken-aurreko txapelketa 560 kiloko pisuan jokatu da.



Goiherri klubak ahalegina egin du Alzagako Akelarre talde historikoa berpizten. HODEI TORRES

2020ko Munduko Txapelketa prestatzen

Faduran jokatu da 2020an Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa. Hori dela eta, apirilaren amaieran TWIF Sokatirako Nazioarteko Federazioko ordezkariak batu ziren Imanol Landa Getxoko alkateagaz.

Uztailaren 7an abiaraziko dute, Erandioko Magdalena auzoan, San Kristobal jaietan. Beste kanporaketa baten ostean, finala Laukizen jokatu da, hilaren 21ean. Lehiaketa horretarako, Goiherri B-ren presentzia ez ezik Getxorena ere zalantzan dago.

Txapelketa mistoa, 600 kiloan, izango da azkena jokatzeko. Egun bakarrean erabakiko dute dena, uztailaren 31n, nahiz eta oraindino Federazioak ez dakien non. Bertan Laukizko hiru taldeen eta Goiherrikoaren arteko lehia izan liteke, ez baitakite Alzagako taldea azkenean aurkeztu ahal izango den. ◀



Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus



LEIOA | Hondakin-uren araztegi (HUA) proiektua

Lamiakoko araztegia baztertu du Ur Partzuergoak

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak baztertu egin du Lamiakon eraikitzekoa zen hondakin-uren araztegi (HUA) proiektua, Leioako Udalak iragarri duenez. Espainiako Ingurumen Ministerioak 2006an aurkeztu zuen aurreproiektua, 116 milioi euroko aurrekontuagaz. Horren ordez, Lamiakoko ponpaketa-estazioak ekaitzetarako andela handitzeari ekingo diote. Horregaz batera beste instalazio bat ipiniko dute, euria dagoenean estuariara igortzen den ur-emaria tratatzeko. Hau da, euririk ez dagoenean hondakin-urak Galindoko HUAN tratatuko dira, orain egiten den moduan.

SOPELA | Sopela Women's Team, onena

Taldea Panorama Guizhou Internacional Women's Road Race txirrindularitza-lasterketan nabarmendu da. María Martins bigarren lotu da.

GETXO | Getxoko monitoreen greba

Sport Studio enpresak eta langileek lan-hitzarmena adostu dute.

LEIOA | San Juan jaia

Leioako txosnak leku berean ipiniko dituzte aurten ere. Horretarako, Altzagako gunearen irisgarritasuna bermatzeko lanak egingo ditu Udalak.

LEMOIZ | Isunak

Ertzaintza isunak jartzen hasi zaie txarto aparkatuta dauden ibilgailuei, eta txakurrak lotu barik daroatzan edo gorozkiak jasotzen ez dituzten jabeei.



LEIOA | Motor-istripua, Burgosen

Leioa Kirol Elkarteak dolua agertu du Igor Gallarretaren heriotzagatik

Leioa futbol-taldeak atsekabea eta dolua erakutsi zituen atzo, Igor Gallarreta klubaren ohiko kolaboratzaile eta lagun handia motor-istripuan Burgosen hil ondoren.



KANTERA INVITATIONAL | Skate-txapelketa, ekainaren 23an eta 24an

«Lehiaketak berriro ere munduko skater hoberenatarikoak erakarriko ditu Getxora»



AIALA EGUILUZ | Erandioko PPko zinegotzia

«Espero dut nire alabak inoiz ez edukitzea beldur-sentsaziorik»



ERANDIO | Oinezko bidea, bidegorria eta patinaje-pista

Metroaren ondoko lursaila birgaituko dute Tartangan

Zenbait ekipamendu ipiniko dituzte Tartangan, Felix Ortun eta Anton Fernandez kaleetako kantoia eta Tartanga kaleko 39. zenbakiaren artean. Udarako, oinezko bidea, bidegorria eta patinaje-pista erabilgarri egongo dira.

Getxo ezagutuz

Bizarra Lepoan euskara elkarteak ohiko bost ibilbide prestatu ditu, Getxo udalerriko ondare etnografikoa eta toponimia hobeto ezagutzeko.

Sopelarinen lokala erosi guran



Uribe Kostako Mankomunitateak Sopelaren herritarren arretarako bulegoko aretoa erosteko aukera proposatuko dio Sopelako Udalari.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoen, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Alaine Agirre idazlearen
X hil da liburua irabaz dezakezu erantzun zuzena emanaz gero

Liburua eskuratzeko, HIRUKA lagunek edo bazkideek maiatzaren 20a (domeka) baino lehenago bidali behar dute erantzuna, izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Maiatzeko saria



Udako egun beroetarako bitxikeriak, Ad⁰la online-dendari esker

Poltsa, belarritakoak, diru-zorroa eta betaurrekoak gordetzekoa zozkatuko ditugu

Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

			6	4			3	
4		5				1		2
	3	6		8			7	
				7	2			
	7			6			1	
5	2					8		
	8					7		
1				3				

7		9						
		2	4	3		1		
	3		8	6				
			6	2		9	4	
4								
	9	1			3	6		5
					4			3
		6	1	7		4		

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

6	2	9	5	8	7	1	4	3
8	1	7	9	5	3	4	2	6
3	9	5	8	7	2	1	4	6
5	8	9	4	3	6	7	1	2
1	2	7	5	8	6	3	9	4
4	6	3	2	1	9	8	7	5
2	7	1	6	8	5	3	4	9
7	5	1	6	8	9	4	3	2
9	3	8	1	2	5	6	4	7

6	2	9	5	8	7	1	4	3
1	5	7	4	2	6	3	8	9
3	4	8	9	1	6	7	2	5
8	1	2	3	9	5	4	7	6
9	6	3	2	7	1	4	5	8
7	4	5	1	8	6	9	3	2
2	7	1	4	6	3	5	8	9
4	6	5	3	9	7	1	8	2
5	3	8	9	4	2	6	1	7

Hitza emanda

Barkamena

Benetako damua
eta barkamena,
egokia, zehatza,
umila, zuzena...
Zintzorik izan bada,
hura zintzoena,
Espainiako erregek
eskatu zuena!



BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA
Leioa



Mundukatuak Zeelanda Berria

«Egun batean lau urtaroak eman daitezke»



Leire Etxegia Mardaras

Nongoa
Algortakoa.

Adina
23 urte.

Zertan dabil
Bidaiatzen.

Ikasketak
Jarduera fisiko eta kirolen zientzietan graduatua eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza-mastera.

Noiz heldu zinen?
2017ko irailean.

Noiz arte bertan?
Datorren urtarilerara arte.



Lurraldea
Zeelanda Berria.

Azalera
268.021 km².

Hiriburua
Wellington.

Biztanleria
4.876.330 (2017).

Hizkuntzak
Ofizialak ingelesa eta maoriera diren arren, lehenengoa erabat da nagusi, eta bigarrena oso egoera gutxituan dago. Keinu-hizkuntza ere ofiziala da; munduan hala gertatzen den kasu bakarrenetakoa da.

Moneta
Zeelandaberritar dolarra (NZD).

IKER RINCON MORENO ►

Antipodetako natura ikusgarriaz gozatu guran, Zeelanda Berrirako hegazkina hartu zuen irailean Leire Etxegia Mardarasek. *Working Holiday Visa* baimena eskuratuta, herrialdean sei hilabetez lan egin eta beste sei hilabetez bidaiatzen ibiltzeko aukera dauka algortarrak. Noizean behin lan eginda, diru apurra batu eta bidaiatzen jarraitzeko aukera du, «lan gogorak izaten dira, egunean hamaika orduz baratzean eta horrelakoak». Hala, epe motzean nahikoa aurreztu eta denboraldi luzez leku ugari ezagutu ditzake. Furgonetan bizi da, nomada gisa herrialdeko bazterrak arakatzeko. «Honek alde aurretik ezagututakoa alde batera utzi eta garrantzia beste gauza batzuei ematera bultzatu nau», dio. Egun denak lau metro koadrotan ematea zaila izaten dela aitortu arren, lotuta ez egoteak ematen duen askatasuna azpimarratzen du: «Uneoro zer egin nahi dudana erabaki dezaket».

Zeelanda Berria irla nagusi bitan banatzen da, iparraldekoa eta hegoaldekoa. 2017an lehenengoa egon zen algortarra, la-

nean eta iparraldeko sumendien ingurua ezagutzen. Aurten, aldiz, hegoaldeko irlan dabil, paisaia ederrez gozatzen: «Zeelanda Berriko Alpeak daude hemen, baita ere glaziar erraldoiak eta ur-jauziak nonahi».

Eguraldiari dagokionez, Euskal Herrikoaren antzekoa dela dio Etxegiak, «baina askoz ere aztoratuagoa». Egun batean lau urtaroak egon daitezke, «txamarra lodia eraman dezakezu, eta berehala tirantedun kamisetan jarri. Eskerrak arropa dena gurekin furgonetan eramaten dugun betil». Maorien kulturak ere sorterrikoaren antzekotasuna duela uste du gazteak, «batez ere biek naturarekiko lotura estua dutelako». Dena dela, inguruotan deigarria egin zaion gauzarik ere badago, hala nola bertan baino aurkiti ezin daitezkeen zenbait animalia, barbarako kiwia, kea eta pingüino urdina. Zeelanda Berrian gidatzeko modua ere arraro egin zitzaion algortarrari, «hemen ezkerretik gidatzen delako eta hasieran asko kostatzen zitzaigulako hori gogoratzea». Dena dela, aitortu du ez direla hori gertatzen zaien bakarrak: «Errei beretik kontrako norabidean kotxeren bat datorkigula ikusi dugu noizbait». ◀